

2018ko apirilak 3an

Kaixo Ekai, zauden lekuan zaudela:

Izen berdina dugu, Ekai. Izanak, ordea, ez du ibilbide berdina izan.

Horrek bultzatu nau gutun hau idaztera.

Mundua asko aldatu da 50 urte hauetan. Mundutarrak askeak gara. Askeak janzteko, askeak jolasteko, askeak izena aldatzeko, sentitzeko eta maitatzeko. Baina oraindik ere loturik jarraitzen dugu zentzu askotan.


Hamabi urte betetzearekin batera zure izena aldatzeko aukera duzu, zure izanarekin bat datorren izen bat. Izen polita aukeratu zenuen. Baina zure arazoa ez zen hori, izana zen arazoa. Erabaki zaila aukeratzera bultzatu zintuen izanak. Erabaki gogorra, sakona eta atzera buelta gabekoa.

Ze zaila behar zuen izan zuria eta beltzaren artean aukeratzea, bakoiti eta bikoitien artean hautatzea, txakurra eta katuaren artean, itsasoa eta mendiaren artean, neska eta mutilaren artean.

Ekai, izango dugu alkarren berri. Egia esan, gustura sentitu naiz gutuna idazten, agian, nire izenak eta izanak bat egiten dutelako. Nahiko nuke zuk bizimodu hau ezagutzea!

Begirunez,

Ekai Alberdi Amonarriz

A handwritten signature in blue ink, consisting of a large, stylized initial 'E' followed by a series of loops and a horizontal line at the bottom.